PROPOSAMENAREN KOKAPEN GEOGRAFIKOA:

EUSKAL HERRIA_ GIPUZKOA_ TOLOSALDEAN

TOLOSAKO ALDE ZAHARREAN, "ezkerraldea" deituriko eremuan, Oria ibaiertzean eraitsitako fabrikek utzitako zaurian

ESKUHARTZE MOTA:

ERAIKIN BERRIA

ERAIKINAK

1_ ARANBURU JAUREGIKO LIBUURTEGIA + MUSEOA
2_ ERROTAKO HAUR LIBURUTEGIA
3_ SANTA MARIA ELIZA
4_ UDALETXEA
5_ ZERKAUSIA
6_ KULTURETXEA
7_ MUSIKA ESKOLA
8_ HAURTZAINDEGIA
9_ OYARBIDE HOSTALA

ESPAZIO PUBLIKOA

1_ ARMERIA PLAZA
2_ARRASTOEN PARKEA
3_ BERDURA PLAZA
4_ PLAZA BERRIA
5_ EUSKAL HERRIA PLAZA



ORUBEAREN kokapena Alde Zaharrean

ORUBEAREN KOKAPENA HIRIAN



PROIEKTUAREN ESTRATEGIAK

ESPAZIO PUBLIKOA



BOLUMENAREN SORRERA

HERRI LANTEGIA FORMALIZATZEKO JARRAITUTAKO ESTRATEGIAK



1_ Orubeko **MEHELINAK** abiapuntu moduan hartu dira . Eraikin berriak bere kokalekua errespetatzen du, preexistentziara egokitzen baita. Hirigintzak ezarritako B+4 solairutako eraikina izango delarik.



2_ ESPAZIO PUBLIKOAREN SAREA bolumenaren beste egituratzailea da: **SANTA MARIA KALEAK** Herri Lantegia barnetik gurutzatzen du, kalearen eta eraikinaren barnekoarekin erlazio zuzena sortuz. Gorriti plazaren jarraipen moduan ibairako jeitsiera dago eta plaza berri honetan gune estali eta libreak daude.



3_ Eraikinaren inguratzaileak **ALDE ZAHARREKO LOTIZAZIO GOTIKOARI** keinu eginez, azalean gora-beherak egiten ditu, azgiztapen naturalaren estrategia moduan erabiliko dena 4. solairuan.



4_ Eraikineko inguratzailearen leihoak **TOLOSAKO ALDE ZAHARRAREN TIPOLOGIAN** oinarritzen dira, leiho erregular luzeak ezarriz altuera desberdinetara, aukerak sortzen dituztenak barnealdean

HERRI LANTEGIAREN PROGRAMA



MEDIATEKA_ Aranburu Jauregian kokatzen den udal liburutegia ez da gai herriaren beharrak asetzeko. Ez dago egokitua ikasleen beharretara, txikiegia geratzen da, eta aisialdirako liburutegi funtziorako soilik balio du.
Mediatekan ikasketarako egokitutako guneak egongo dira, bai espazio irekiak eta baita gela itxiak ere. Klase partikularrak emateko espazioak, ordenagailu guneak…

COWORKING LANTEGIAK_ Alde zaharreko lekua aproposa da lantegien kokalekurako, alde zaharra erabilera mixtoen eredua baita. Herri lantegian coworking sistemaren bidez langile mota desberdinentzako azpiegiturak ezarriko dira, moldakorrak izango direnak euren beharren arabera.

ELKAREKINTZA ESPAZIOAK_ herri lantegian "nahasketa" aukera moduan erabiltzen da eta eraikinaren espazioek, elkarekintza bilatzen dute uneoro. Bi bolumen nagusiak lotzen dituzten guneak nahasketa eta interakzio espazioak izango dira.



ZIRKULAZIOA_ PROGRAMA NAHASKETA

Herri lantegian zehar ZIRKULAZIOA izango da espazioei izaera desberdina emango diena eta aldi berean, ekarekintza bultzatuko duena. Zirkulazioaren bidez programa nahasketa sortzen da, erabiltzaileentzat aberasgarri izango diren erlazioak sortuz.

Zirkulazio nagusiak barne fatxadaren kontra kokatu dira, bi bolumen nagusien arteko lotura bisuala konstantea da eta honela erlazioa lortuko da.

Solairu batzuetan erabiltzaileen arteko nahasketa bilatu da eta beste batzuetan banatuagoak daude funtzioen arabera eta zirkulazioaren norabidetasunak baldintzatzen ditu erabilera hauek.

Santa Maria kaleak eraikina barnetik gurutzatzen duenez, herritar eta eraikinaren erlazioa areagotu egiten da,ibiltzariak herri lantegiaren barnean dagoenaren sentsazioa izango du eta jendearen joan-etorria ikusi ahalko dute.

ORUBEAREN AZALERA: 2650 m²

ERABILERAK OINEAN
- zirkulazio erabilera
- mediateka erabilera
- coworking erabilera
- erabilera mixtoa
- igogailua
- gune hezea
- instalakuntza gunea
- larrialdi irteera

HERRI LANTEGIAREN OINAK PERSPEKTIBAN
e:1/200



PROIEKTUAN KONTUTAN HARTU DIREN FAKTOREAK



FABRIKEN ERAISPENEN ONDORIOZ AGERIAN GERATU DIREN MEHELINAK

ALDE ZAHARREAN KOKATUTA EGOTEA

ORIA IBAIAREKIN ERLAZIOA

INGURUKO BIDESAREAN INTEGRATZEA

EGUZKITZAPENA

IKUSPEGIAK

HERRI LANTEGIAREN IKUSPEGIA ORIA IBAIAREN BESTE ETZETIK

HERRI LANTEGIAREN PROGRAMA

COWORKING _ Coworking-a lan egiteko sistema bat da non profesional independienteek, ekintzaileek eta sektore desberdinetako enpresa txikiek lan-espazio bera erabiltzen duten. Modu honetan euren proiektuak modu independientean garatu ditzakete edo baita amankomunean ere.

MEDIATEKA_ Mediateka formakuntza prozesuan ari den herritarrei zuzendutako espazio malguek osatuko dute, elkarekintza bultzatzen duten gune askorekin. Bi erabileren nahasketa puntuak izango dira aberasgarrienak herri lantegian.



HERRI LANTEGIKO BARNEKO KALEKO IKUSPEGIA

HERRI LANTEGIKO BARNE KOMUNIKAZIOA BI ERABILEREN ARTEAN



Gr.A.L. 2016 D.A.G.E.T.

ISAURA RODRIGUEZ AZPIROZ
zuzendaria: JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

HERRI LANTEGIA TOLOSAN